

## JULENE AZPEITIA GOMEZ (1888-1980)

Otsail honen 5-ean, 92 urtekin hil zen Julene Azpeitia, euskaltzain ohorezkoa, Bilbon. Izatez zumaiarra zen, 1888.eko Urtarrilaren 8an jaioa.

Donostia eta Bilbon ikasketak egin ondorean eskola maistra egin zen. Valladolid-eko oposizioetan, 1911.urtean, lehenen gertatu zen, eta Bizkaian, eskola maistra sartuz bertan eman ditu bere bizitzako urterik gehienak.

1916an, Enrike Eskauriatzarekin ezkondurik, México-ra joan zen bizitzera. Han lau urte iragan ondorean, berriz etorri zen Euskal Herrira eta, Bizkaian maistra jarraitu zuen. Gerraondoan, zigorrez, Burgos-ko Mena haranean maistra urte batzuk igaro bazituen ere.

Julene, maistratz gainera euskal idazlea ere ba zen. 1918an hasi zen euskaraz idazten México-ko Centro Vasco elkarteak eratu zuen jaialdian eta geroztik artikulu, ipuin eta irratsaio asko idatzi ditu. Aldizkari askotan utzi du bere lana: *Euskadi* egunkariaren “Euzkotar umien alde” zeritzan sailetik hasi eta *Yakintza*, *Euskera*, *Egan*, *Zeruko Argia*, *Karmel* eta abar.

Liburuak ere argitaratu zituen: *Osasuna, merketza ta Yanaritz*a (Bilbo, 1920), gastronomia lana, Euskaltzaindiak saritua; *Irakurri matte* (Bilbo, 1932), 1925ean Bizkaiko Diputazioak pedagogi gaiez eratu zuen lehiaketa irabazi zuena; *Azeri jauna* (Bilbo, 1960); *Amandriaren altzoan* (Zarautz, 1961); *Umien adiskidia* (Bilbon, 1962); *Zuentzat* (Donostia, 1974).

Aipatutako bi sari horietatik aparte beste honako hauek ere jaso zituen: Kirikiño saria 1933an, “Euli baten edestia” ipuinez; eta Miarritzen, 1959an, “Auntza baratzan” zeritzan ipuinez.

*Irakurri maitte*, euskaldun haurrek euskaraz ikas zezaten, hiru liburuxka omen ziren eta lehenak bakarrik ikusi zuen argia. Beste bi irakurgaiak, gerratearen erasoak, izkuterazi zituen.

Haren lana probetxugarria izan zen pedagogi aldetik. Haren merituengatik, Euskaltzaindiak, urgazle izendatu zuen 1964an, eta 1975. urtean, Emakumearen Nazioarteko Urtea ospatzean, euskaltzain ohorezko izendatu Zituen bera, Madeleine Jauregiberri eta Tene Mujikarekin.

Goian bego, gure emakume euskaltzalea.

*Juan San Martin*